

“Azken” herria Korrikako lehena

Karrantza nekez da albiste hedabideetan eta haraneko biztanleek erresumin horixe dute. Baztertuak, zokoratuak ei dira autobide tzarrik igaro ez delako bertatik. Bizkaitar dira eta, tarteetan, badira euskaldun eta euskaltzaleak. Herri ahanzia ezagutzen lagundu digute hiru herritarrek.

Miel A. Elustondo

KARRANTZA HARANA, Euskal Herriko azken bazterretakoa, Zuberoan Eskiula iduri. Kasu honetan, Karrantza Harana bera baino urrutiago bada beste euskal herri bat ere, ordea, Lanestosa. Harekek behar du azken, edo, Joxe Mari Alixe dioenez, lehena: “Nondik begiratzen den! Hemen-dik begiratzuz gero, geu gara lehen. Erdialdetik abiatzen bazara, orduan bai, azkenak ginateke, periferia. Baina oso pozik gaude gure herrian, gauden lekuan”.

Karrantza Harana udalerriko hiru lagun ditugu solaskide eta berriemaile zaildu: Sonia Gonzalez baserritarra, Joxe Mari Alix trenbideetako ingeniari erretiratu eta Kontxi Trigo irakasle jubilatua. Honen Lur txakurra ere usnan ibili dugu denbora guztiko.

%70 baserritarra

Gonzalezek soroa du ogibide. “Karrantzan baserrria da nagusi oraindik. Bizilagunen %70 horretan ari da lanean. Diote, Euskal Herrian geu garela lehenengo sektorearen bihotza, nahiz eta egoera hori ere aldatzen ari den. Orain arte lurra lantzetik bizi izan gara haraneko gehienok. Gaur



Sonia Gonzalez, Joxe Mari Alix eta Kontxi Trigo karrantzar euskaltzaleak.

egun, esne sektorean, berrehun haztegi baino gehiago daude, gehienak berrogei eta berrogei eta hamar esne-behiz osatutakoak. Haragitarako behiak ere badira, jakina. Eta Karrantzako ardi famatua ere hor da, ardi burubeltza, oso gazta goxoa egiten da haren esneaz, baina, zoritxarrez, desagertzeko zorian dago. Ekoizpenari eusten diogula dioenak ezkutatu egiten du gertatzen ari den aldaketa: ekoizpenari eutsita ere, baserritar gutxiago ari da lanean. Gazteak, adibidez, Bilbo aldera ari dira, ikasi eta lanera; ez dute lurreko lanari lotuta bizi nahi, oso gogorra iruditzen baitzaie. Beldur gara gure gurasoen belaunaldiarekin batera ez ote den desagertuko hemengo paisaia bera ere, harrezkero ez ote den pinua nagusituko Karrantza Haranan”.

Eskerrak bide nagusitik at den

Denbora geratu egin da hemen. Industriak eragindako garapen ekonomiko handirik ez da Bizkaiko bazter ederrean. Zalla herria du hainbat behar eta

premiatarako zerbitzugune. Bilbo aldetik Zallarantz errepidea, autobia izango da aurtien bertan. Zalla eta Karrantza lotzen dituen, aldiz, bere horretan da aspaldi. Aukeran, batek baino gehiagok Kantabriako itsasaldera jotzen du, bi erraileko bide bila. Handik samurrago da Bilborako bidea, laburragoa ez bada ere. Haranean garraiobide azpiegiturak garai batekoak dira, errepide estu eta bihurria batetik; autobusa eta tren, bestetik. Autobusez, adibidez, ordu bat dute Zallara, bi ordu Bilbora. Hemen ez da autoestrata eta AHTrik. Gonzalezek ez luke horrelakorik nahi. “Ez, faborez! Horrela hasiz gero, laster beteko litzateke hau luxuzko etxez. Hain zuzen, bide nagusitik aparte egoteagatik dugu paisaia eder hau. Kito ginateke bestela”. Ados da Alix eta zehaztasuna egin nahi du Kontxi Trigok. “Dena dela, nik neuk nahiago dut txaleta egin dezaten, eta ez Raneiron, Pozalaguako leizezuloaren ondoran, hemengo udala egiten ari dena. Balizko auditorioa egiten ari dira, eta

Iruñera arte Korrika

Martxoaren 22an Karrantzan hasi eta apirilaren 1ean Iruñean buka-tu. Korrika 15ek euskal emaku-mea omenduko du milaka herritar korrika ari den bitartean. Niko Etxartek egindako hitzek eta musi-kak alaituko dituzte bazterrak api-riaren 1a arte.

etxea baino handiagoko ebakiak egin dituzte haitzean, laser izpiz. Txikitu egin dute parajea. Zertarako, eta urtean behin egiten den musika jaialdi baterako". Gonzalezek badu esatekorik. "Aldiz, hainbat baserrik bide negarga-ria du oraindik".

D eredua, eredu bakarra

Alixen arabera, X. edo XI. men-dean jo zuen erreka euskarak haran honetan. "Gaztelar oldea etorri zen, nonbait, mairuen-gandik ihesi, eta hementxe jarri ziren. Juduek, notario lana egi-ten zuten, euskarazko topo-nimo batekin topo egin eta gaz-telaniaz itzultzen saiatzen ziren. Adibidez, hemen bada mendi magal bat Espaldaseca izene-koa. Bistan da euskarazkoaren itzulpena dugula hori: Bizkarra-legorra, alegia. Eta Trigok aipa-tu duen Ranero izenari itzuliz, gauza batek harritu nau beti. Ez ote da akaso izango arrano hitza-ren itxura aldatzea?, ezen Raneron arrano piloa baitago".

Gaur egun, euskaraz mintzatzen dira Gonzalez eta Alix, eta inkili-man-kala Trigo. "Gurasoak nituen berto-koak. Hemendik kanpo egin dut lan eta duela bost urte itzuli nintzen Karrantzara. Euskaraz ikasten ari naiz bizi guztian! Francoren garaian hasi nintzen, eta segitu egin nuen gero. Estatu kolpearen ahaleginak ere eus-kaltegian harrapatu ninduen. Eta

hurrena beste estatu kolpe bat baldin bada, euskaltegian harrapatuko nau. Halakoxea naiz ni. Gaztetan, euskaraz militatzen nuen. Izan ere, pertsona dezente xamarra izanez gero, eta ezkerrekoa, euskaraz ikasi beharra zegoen *per coullons*. Espainola zinen bestela! Are gehiago, hemen, espaino-lek euskaraz ikasten zuten, gutxi-asko aurrerakoiak baldin baziren, behin-tzat". Finean, ideologiak eta 60ko hamarkadako giro suharrak bultzatu zuten Trigo euskaraz ikastera. Besterik da Gonzalezen kasua. Karrantza Haranan bertan jaio eta hazia, gaztela-niaz ikasi zuen eskolan. D hizkuntza eredua duela hogeita bi urte ezarri zen haranean, eta euskarazko eredu hori baino ez da eskaintzen bertako herri ikastetxean. "D eredua ezarri zenean tirabirak izan ziren irakasleen artean; alde ziren batzuk, eta kontra, beste

hogeita bi urte lortu zenaren emai-tzak ikusten ari gara. Omenaldirik beroena merezi dute lan egin zuten guztiek. Aldi berean, gogoan hartu lan handia dugula eginkizun, normal-kuntza eta ofizialtasunaren arloan."

Korrikako lehen herria

Karrantza Haranako udaletxe ataritik irtengo da Korrika 15. Hilaren 22an izango da hitzordua, 17:30ean. Trigo liluraturik dago. "Egongo ez naiz ba! Enkarterri Euskal Herriaren betiere-ko ahantzia izan da! Lekeition lan egi-ten nuelarik, zera esaten zidaten, gutxiesgarri: Kantabriakoa zara, hor-taz?, Ez, Karrantza Bizkaian dago!. 'Bai, baina Bilbotik oso urrun!, eta erantzun behar izaten nien: Bilbotik hurrago dago Karrantza, Lekeitio baino. Horixe da Karrantzaren gaine-ko aurreustea, eta ezjakintasuna!".

Korrika, hala ere, Enkarterrin izana da lehenagotik ere. Zalla, Balmaseda eta beste, euskararen aldeko korrikaldiak ez du ingu-rua arrotz. Aurten, aldiz, Karrantzatik bertatik abiatuko da Korrika.

Gonzalezek poz handiz hartuko du lasterketa herrian. "Urguilu handia da Korrika hemendik irtetea. Umeekin bai, hainbat Korrika txiki egin izan dugu, baina benetako Korrika hemendik abiatzea kristolakoa izango da. Guretzat, behintzat".

Gauza ziurra ez bada ere, balite-ke Karlos Santisteban idazle ezaguna, karrantzara baita sortzez, izatea lehenengo lekukoaren eramailea. Tri-gok badu esperantza. "Karlosek Karrantzaren berri zuzen eman aha-lko du leku guztietan; alegia, Karrantza ez dela herri, ez eskualde, harana baino". Harana, eta udalerri: berro-geita zortzi auzo, hamasei parrokia, Euskal Herriko udalerririk handiena, hedaduraz, besteak bezain euskaldun zein deseuskaldundua. n



Karrantza, hedaduraz, Euskal Herriko udalerri handiena da.

batzuk. Euskarazko eredua aurrera-pauso handia izan zen. Irakasle eta guraso jakin batzuei esker lortu zen". Garai hartan, Lehen Hezkuntzara bitarteko irakaskuntza aukera besterik ez zegoen Karrantzan. Handik aurre-ra, herritik irten beharra zuten berta-koek, dela Balmasedara, Sopuertara, Gueñesera edo beste norabait. Gaur egun, aldiz, DBH osoa egin liteke Karrantzan. Arrunt aldatu da egoera.

Nola da gaur egun euskararen ego-era? Gonzalez da mintzo: "Duela

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB